



Arartekoaren 2014R-707-14 ebazpena, 2014ko azaroaren 26koa. Horren bidez, UPV/EHUri gomendatzen zaio Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoko irakaskuntza-eskaintza berriz aztertzeko, Gobernu Kontseiluaren 2009ko azaroaren 19ko Erabakiaren, irakaskuntzaren plangintzarako araudia Graduko titulazioak ezartzeko prozedurara eta eremura egokitzekoaren, irizpideekin bat eginez.

### Aurrekariak

1. Erakunde honetan kex-a-idazki bat jaso zen, UPV/EHUko Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoak 2014-2015 ikasturterako hautazko irakasgai hauek kentzeko erabakia hartu zuelako: Mantentze Lanen Kudeaketa Integrala, Muntaketak eta Neurketak, Laneko Arriskuen Prebentzia eta Mantentze Lanetarako Teknikak.

Kexa sustatu zuten pertsona interesdunek adierazi zuten aurretik Eskolako Zuzendaritzara, Irakasleen Errektoreordetzara eta Unibertsitateko Errektoretzara joan zirela, baina ordura arte ez ziela erantzun instantzia horietako bakar batek ere.

2. Kexa izapideztea onartu ondoren, erakunde honek erabaki zuen UPV/EHUko zuzendari nagusiari oroitaztea zer agintzen duen 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Procedura Erkidearenaren, 42. artikuluak, eta era berean, eskatu genion gure esku-hartzea eragin zuen isiltasun-egoera gainditzeko, ahalik eta azkarren.
3. Lehen jarduketa honi erantzuteko, UPV/EHUko idazkari nagusiak UPV/EHUREN maiatzaren 9ko Ebazpenaren kopia bat igorri zion erakunde honi. Ebazpen horren bidez, ez zen onartzen kexaren sustatzaileek aurkeztutako aurkaratzeko idatzia, garaiz kanpokoa izateagatik.
4. Ebazpen hori ikusita, erakunde honek beharrezkotzat jo zuen esku hartzen jarraitzea, eta UPV/EHUko idazkari nagusiari berriz laguntzeko eskatu zion, hitz hauen bidez:

*"Egiaz, helarazitako informazioa aintzat hartuta, ikuspuntu hertsiki formal batetik gure hasierako esku-hartzea eragin zuen isiltasun-egoera gainditu dela aitortu behar dugu, 2014ko maiatzaren 9an emanako ebazpenaren ostean. Ebazpen horren bidez, kexaren sustatzaileek aurkeztutako aurkaratzeidatzia ez onartzea erabaki da, epez kanpo jarri zutelako.*

*Dena den, gure aburuz, interesdun horiek aurkeztutako kexari zentzuzko tratamendua emate aldera, unibertsitate horrek erabaki arrazoitu bat eman behar du Itsas Ingeniaritzako Graduko hautazko irakasgaien irakaskuntza-*



*eskaintzan sartutako aldaketaren inguruan, Gobernu Kontseiluaren 2009ko azaroaren 19ko erabakiak –irakaskuntzaren plangintzarako araudia graduko”.*

5. Emateko zegoen lagunza derrigorrez eskatu behar izan ondoren, azkenik, UPV/EHUko idazkari nagusiak UPV/EHUREN 2014ko urriaren 17ko Ebazpenaren kopia bat helarazi zuen erakunde honetara. Ebazpen horren bidez, ez dira onartzen kexan kexagile diren interesdun batzuek 2013ko uztailaren 18ko Erabakiaren aurka aurkeztutako errekurtoak (kexan).

Era berean, UPV/EHUko idazkari nagusiak, ebazpen horretako oinarriak oinarri hartuta, gertaera hau nabarmendu nahi izan du:

*Ante la falta de cobertura de profesorado para atender a los Grados y Másteres. (debido a las limitaciones legales habidas a partir del Real Decreto- ley 20/2011, de 30 de diciembre, de medidas urgentes en materia presupuestaria, tributaria y financiera para la corrección del déficit público) la implantación en el curso 2014/2015 de los respectivos Másteres en Ingeniería Náutica y Transporte Marítimo, y de Ingeniería Marina, quedaba condicionado al recorte de asignaturas optativas que se ofertaban en los respectivos Grados.*

*En el caso de las reiteradas asignaturas optativas (4), eliminados para el curso 2013-2014, que los promotores de la presente queja piden se oferten en el Grado de Ingeniería Marina para el curso 2014-2015, pasarán a incluirse en otras asignaturas de Grado y Másteres lo que haría incomprensible, en orden a la racionalización de recursos, su mantenimiento como asignaturas optativas.”*

6. Bukatzeko, erakunde honek UPV/EHUko idazkari nagusiak emandako informazioa helarazi die interesdunei, egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Aurrekari horiek kontuan izanda, ebazpen hau egitea egokitzat jo dugu, hauen arabera:

#### Gogoetak

1. UPV/EHUko Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoko irakaskuntza-eskaintzaren inguruan sustatu den kexa honetan sortutako eztabaidaren xedea behar bezala ardagteko, gure ustez, lagungarria izan daiteke azken ebazpen horretan, 2014ko urriaren 17koan, erabiltzen den argudio-eskemari jarraitzea (Ebazpena, 2014ko urriaren 17koa, kexan kexagile interesdun direnetako batzuek 2013ko uztailaren 18ko Erabakiaren,



Itsasketa Ingeniaritza Graduko 2014/2015 ikasturterako hautazko irakasgaien eskaintza onartzen duenaren, aurka aurkeztutako errekursoak onartzen ez dituena).

Ebazpen horretan, ez onartzeko erabakia zertan oinarritu zen azaltzen denez, interesdunen errekursoa eragiten duten aurrekariak luze eta zabal aipatzen dira. Hala, bigarren oinarrian, hauxe azaltzen da:

*...., del informe emitido por el centro afectado por la queja que nos ocupa se constata la siguiente secuencia temporal de actuaciones combatidas con esta alzada, ahora, contra el Acuerdo adoptado el 18 de julio de 2013, que tuvo su inicio.*

- a) *En la sesión extraordinaria celebrada el 19 de junio de 2013 se aprobó mantener la oferta docente completa el curso 2013/2014 en lo referido a las asignaturas optativas para los cursos 3º y 4º de los respectivos Grados de Ingeniería Náutica y Transporte Marítimo, y de Ingeniería Marina.*

*Igualmente se aprobó el compromiso de reducción de asignaturas optativas en la oferta docente para el curso 2014/2015 en los citados Grados.*

*El motivo venia dado por la premura que imponía la implantación en el curso 2014/2015 de los respectivos Másteres en Ingeniería Náutica y Transporte Marítimo, y de Ingeniería Marina, condicionado al recorte de asignaturas optativas que se ofertaban en los respectivos Grados, ante la falta de cobertura de profesorado para poder atender a los Grados y Másteres.*

- b) *En la sesión ordinaria celebrada el 18 de julio de 2013 se aprobó la propuesta, elaborada el 15-7-2013 por la Comisión de Desarrollo Curricular, de retirar de la oferta docente para el curso 2014/2015 en el Grado de Ingeniería Marina las reiteradas asignaturas (4), - que los recurrentes piden se oferten en el Grado de Ingeniería Marina-, pasando a incluirlas en otras asignaturas de Grado y Másteres Anexo V del Acta de la sesión de la Junta de Centro celebrada el 18 de julio de 2013).*

*Tanto en las Actas de las sesiones de 19 de junio y de 18 de julio de 2013 consta la presencia de recurrentes.*

Aurrekari horiek oinari hartuta, oinari horretan hau ondorioztatzen da:

*En definitiva, no cabe amparo a los recurrentes, dado que: a) estamos ante un acto, el Acuerdo de 18 de julio de 2013, firme y consentido, sobre el que esta Universidad tuvo ocasión de pronunciarse en la Resolución de 9 de mayo de 2014; b) los recurrentes carecen de legitimación al no tener en su esfera jurídica o patrimonial un derecho preexistente que se haya vulnerado con la aprobación del Acuerdo o denegación de su petición; c) finalmente, por ser la actuación del Centro en lo que hace a la no oferta de la optatividad, reproducción durante el curso 2014/2015 de un acto anterior del curso 2013/2014 definitivo y firme; d) a mayor abundamiento, en*



*cuento a falta de legitimación, está el hecho de que los recurrentes pertenecientes al Área de Construcciones Navales postulan por la asignatura Prevención de Riesgos Laborales (27.503) correspondiente al Área y Departamento de Medicina Preventiva y Salud Laboral.*

*3º En lo que hace a la petición de que se retiren las asignaturas optativas que durante el curso anterior 2013/2014 no llegaron a 7 alumnos matriculados, cabe destacar que los recurrentes no concretan cuales podrían ser, puesto que de darse tal supuesto en el curso 2014/2015, sería su mantenimiento en consideración a que de ser eliminadas de la matrícula tales asignaturas, supondría un perjuicio para los alumnos, especialmente aquellos que hicieron su elección y cursaron el 3º curso en los Grados (Acta sesión 18 de julio de 2013).*

Hala, eta 2014ko maiatzaren 9an emandako ebazpenean gertatu zen bezala, kexagileek planteatutako arazoa sakonki aztertzea saihesten da, errekursoa berriz ere ez dela onartu adieraziz, garaiz kanpokoa dela irizteagatik, eta kexagileei behar adina legitimatu ez izana aurpegitatuz.

2. Erakunde honen ustez, ez onartzeko erabaki hori eztaba idatzeko arrazoi izan daiteke, esate baterako, kexagileen legitimazio-ezari dagokionean. Edonola ere hori ez aipatzen saiatuko gara eta, azken buruan, kexa aurkeztea eragin duen gaia sakontzen saiatuko gara; hots: 2014/2015 ikasturterako hautazko irakasgai hauek kentzeko erabakia: Mantentze Lanen Kudeaketa Integrala, Muntaketak eta Neurketak, Laneko Arriskuen Prebentzioa eta Mantentze Lanetarako Teknikak.

Gai horri dagokionez, ebazpenean jasotako gogoeta bakarra eta, geroago, UPV/EHUko idazkari nagusiak ere azpimarratu duena, hauxe da: Graduak eta Masterrak artatzeko irakasle nahikoa ez dagoenez, 2014/2015 ikasturtean Itsasketako Ingeniaritzako eta Itsas Garraioko Masterrak ezartzeko, ezinbestekoia izan da dagozkien Graduetan eskaintzen ziren hautazko irakasgaiak murriztea.

Hala ere, kexaren sustatzaile interesdunek, beren azken alegazioetan, azpimarratu dute hautazko irakasgai horietan egindako murrizpena ez dela konpentsatu 2014/2015 ikasturtean hasi diren Masterrak ezarriz.

Gai horri dagokionez, iritzi dugu haiiek egindako ohar batzuk errepruduzitzea adierazgarria izan daitekeela: Hau da, interesdunek egindakoak:

*La dirección de la Escuela en vez de aplicar la ley (Acuerdo de Consejo de Gobierno de 19-11-2009) y con esto eliminar de la oferta las asignaturas con menos de 7 alumnos de matrícula cumpliendo de esta forma con las medidas del Real Decreto ley 20/2011, de 30 de diciembre, lo que hace es a través de la junta de centro en la cual tienen mayoría eliminar de la oferta docente las asignaturas optativas que más matrículación tienen y mantener las asignaturas que tiene menos de 7 alumnos (hay algunas que tenían un*



*alumno). Esto para favorecer a los profesores que las imparten en un claro abuso de poder y posible prevaricación*

Bestalde, UPV/EHUko idazkari nagusiak egindako baieztapenei dagokionez, hauek zehaztu nahi izan dituzte:

*(...) el Sr. Secretario General de la UPV/EHU miente cuando asevera que "En el caso de las reiteradas asignaturas optativas (4), eliminados para el curso 2013-2014, que los promotores de la presente queja piden se oferten en el Grado de Ingeniería Marina para el curso 2014-2015, pasarán a incluirse en otras asignaturas de Grado y Másteres lo que haría incomprensible, en orden a la racionalización de recursos, su mantenimiento como asignaturas optativas" puesto que no se han incluido en otras asignaturas de Grado y Máster. Lo que sí es incomprensible, en orden a la racionalización de recursos, es que se eliminen de la oferta las asignaturas que mas alumnos tienen.*

3. Gure ustez, kexagileek beren azken alegazioetan aipatu duten azken egoera horrek (kaltetutako irakasgaiak Graduko eta Masterretako beste irakasgai batzuetan ez sartzea) zalantzak gabe azaltzen du Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskolak hartutako erabakiaren egokitasuna behin eta berriz aurkaratzea, bai eta Masterreko irakaskuntza berriak artatzeko behar adina irakasle ez izatearen arazoa Gobernu Kontseiluaren 2009ko azaroaren 19ko Erabakian ezarritako irizpideei jarraiki konpontzeko seta –eta hori da, gure ustez, benetan garrantzitsuena- (Gobernu Kontseiluaren 2009ko azaroaren 19ko Erabakia, irakaskuntzaren plangintzarako araudia graduado titulazioak ezartzeko prozedurara eta eremura egokitzeakoa).

Erabaki horretako hitzen arabera:

*"Primero- Sólo se autorizará la oferta de asignaturas optativas cuando el número de estudiantes matriculados en el curso anterior haya sido mayor o igual que 10. En aquellas titulaciones en las que la matrícula media registrada en las asignaturas troncales y obligatorias del curso anterior en cuyo horario se imparte la asignatura en cuestión no alcance los 30 estudiantes, se autorizará de forma excepcional la oferta de asignaturas optativas con una matrícula en el curso anterior inferior a 10. En ningún caso se autorizará una asignatura en la que el número de estudiantes matriculados en el curso anterior haya sido menor que 7."*

Horregatik eta Erabaki hori biribila denez, erakunde honek irizten du kexan kexagileek dutela arrazoia hau eskatzen dutenean: Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskolan Unibertsitateko Masterreko irakaskuntzak ezartzetik irakaskuntza-programazioan egin behar izan diren doikuntzek ezin dituzte baztertu aldez aurretik Gobernu Kontseiluaren 2009ko azaroaren 19ko Erabakian, irakaskuntzaren plangintzarako araudia graduado titulazioak ezartzeko prozedurara eta eremura egokitzeakoa, ezarritako irizpideak.



URTE AÑOS

Hori dela eta, 3/1985 Legearen, otsailaren 27koaren, Arartekoa sortu eta arautzen duenaren, 11.b) artikuluan agindutakoari jarraiki, hau aurkezten da:

#### GOMENDIOA

Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoko irakaskuntza-eskaintza berriz aztertzeko aukera emango duten beharrezko neurriak hartzeko, Gobernu Kontseiluaren 2009ko azaroaren 19ko Erabakiaren, irakaskuntzaren plangintzarako araudia graduko titulazioak ezartzeko prozedurara eta eremura egokitzekoaren, irizpideekin bat.